

SUMMA ALDAPETA ikastetxea. BEREZKO IZAERA DONOSTIA



1. SARRERA

Summa Aldapeta ikastetxea hiru kongregazio erlijiosoren eskaintza bat da, hala nola, Gure Ama Mariaren Lagundia (ODN), Maria Sortzez Garbiaren Alabak (FMI) eta Mariaren Lagundia (SM) kongregazioena. Hirurek helburu argi batekin batu dituzte beren proiektuak eta hezkuntza-esperientziak: Ikastetxearen eskaintza jaso nahi eta onartzen duten Donostialdeko ikasle zein familiei ahalik eta hezkuntza-eredurik onena eskura jartzeko helburuarekin, alegia. Horrez gainera, eta Batxilergoari dagokionez, beste ikastetxeetatik datozen ikasleei ere etapa horretan ikasketak egiteko aukera emango die.

Ikastetxe honek hezkuntza eskaintza zabala dauka, adin desberdineko ikasle kopuru handi bati zuzendua. Hiru kokagune dituen Ikastetxea denez, ikasleen bakarkako ezagutza, laguntza, jarraipena eta gertutasuna ahalbidetzen ditu.

Gure Hezkuntza Proiektua, gizabanakoaren eta bizitzaren kristau ikuskeran oinarritzen da. Bere ikasleak, Ebanjelioaren baloreen arabera hezi nahi ditu. Heziketa lana familiarekin eta gizartearekin partekatu nahi ditu egungo testuinguru kultural eta sozialean. Maria da gure hezkuntza lanaren inspirazio iturri.

Summa Aldapeta ikastetxea, Euskal Eskola Kristauaren eskaintzaren zehazpen bat da. Bat egiten du goitik behera Eliza Katolikoaren misio ebanjelizatzailearekin, eta berorrek Hezkuntza arloan duen presentzia eta lekukotasunarekin, gizartearen esku bere hezkuntzaondarea eta bere hezitzaileen profesionaltasuna jarriz. Heziketa lanean lankide eta arduradun nagusi diren gurasoen konfiantza erabatekoa dauka.

Hezkuntza kontzertuei heldu die mota guztietako ikasleen integrazioa erraztearren. Gure ikastetxean, beharrik handieneko ikasleek lehentasunezko arreta jasoko dute.

Ikastetxeak, bertaratzen direnentzat kultura, fedea eta bizitza oinarrizko dimentsioak izango dituen gunea izan nahi du.

Gure egitekoa aurrera eramateko, ezinbestekoa da berezko izaera hau gure Hezkuntza Elkartearen osatzen duten estamentu guztiek ezagutu eta onartzea. Estamentu horien ekimen eta interesei bide ematen diegu guztion artean gure Hezkuntza Proiektua gauzatu ahal izateko.

2. GURE MISIOAREN IRAGANA ETA ORAINA: EBANJELIZATUZ HEZTEA

**LESTONNAC-eko SANTA JUANA
GUILLERMO JOSE CHAMINADE DOHATSUA
TRENQUELLEON-go ADELA DE BATZ BENERAGARRIA**

Hiru Kongregazioak 1868, 1887 eta 1930az geroztik gaude San Bartolome Muinoan eta Aldapetan. Kongregazio bakoitzaren fundatzaileek, hala nola, Lestonnac-eko Juanak (Bordele 1556-1640) eta Guillermo José Chaminadek (Perigueaux 1761-1850), Trenquelleon-go Adela de Batzekin batera (1789-1828) Eskolak misio ebanjelizatzailean duen egiteko garrantzitsuaren inguruko intuizioa izan zuten bere garaian, pertsonen prestakuntzan arlo intelektuala eta fedeheziketa uztartuz.

Hiru Erakundeak “Elizarentzat dohain” izan ziren beren sorreran, eta halaxe izaten jarraitzen dute egun ere; fundatzaile eta jarraitzaileei esker gauzatu den dohain, alegia. Biografia labur baten bidez, esker oneko oroitzapena adieraziko da.

LESTONNAC-eko SANTA JUANA

Kalbindar ama eta aita katolikoaren alaba, gizarte, politika eta kultur arloetan eragin handiko Bordeleko familia batean hazi eta hezia, oso gertutik bizi izan zuen Frantzia banatu zuen gatazka erlijiosoan. Herentzia gisa fedea jaso zuen, familiarterko borroka latzen artean. 24 urteko ezkontza-bizitzak emazte leial eta seme-alaben ama zein hezitzaile zintzo egin zuen. Sarri bakar bakarrik bete behar izan zuen lan hori, batetik senarrak maiz bidaiak luzeak egin behar izaten zituelako, eta bestetik alargun gelditu zelako. Horrekin batera bere ondasunen kudeatzaile, eta nekazaritza kutsuko giro hartan inguruan bere zerbitzura zituenera gertuko izatea ere egokitu zitzaion. Eta ez hori bakarrik: garai hartan izurriteak jota zegoen Bordelen, behartsu eta gaixoei behar bezalako arreta eskainiz ere jardun zuen. Zistertar monastegi xume batean jasotako porrot eskarmentuan, Jainkoak beste bide bat erakutsi, eta “laguntza ezagatik galbidean den gazteriarri eskua luzatzeko” deia jasoko du. La Mothe-ko bakardadean, jasotako dohaina barneratu, gogoeta egin, eta otoitz egingo du, ondoren garai hartako frantses gizarteak zituen erronkei aurre egiteko. Hasieratik beretik Jainkoaren deiak beste hainbat gazte ere bilduko ditu. Bere hasierako lau kideak, bera barne, Gure Amaren Ordenako “oinarri biziak” izango dira. 1608ko udaberrian lehen Komentu-Eskola sortuko da Bordelen. Juana izango da Jainkoak haratago eraman, eta bere buruari begira ez, baizik eta ingurukoentzat bizi behar zuela ulertarazi zion emakume bilatzailea.

1949ko maiatzaren 15ean Elizak Santu egin, Jesusen lekuko gisa aurkeztu, eta bere bizibidea beste pertsonentzat baliagarri izan daitekeela baieztatu zuen.

Maria Gure Amaren Lagundia, hezkuntza arloan diharduen emakumezkoen lehen Ordena erlijiosoan da. Elizak 1607an onartu zuen. Lestonnac-eko Juanak, salbazioaren bere esperientziatik abiatuta, bere Hezkuntza Proiektua gauzatzea lortuko du, zeinaren baitan bere esperientzia pertsonal aberatsen islapen armoniatsuaz gainera, bere garaiko hainbat ekarpen desberdin ere biltzen baitira, hala nola, zenbait printzipio filosofiko zein pedagogikoren iturri izango den bere osaba Miguel de

Montaigne-ren humanismoa, emakumearen heziketan funtsezkoa izan zen kalbindar ausardia, Loiolako Inazioren tradizioa, eta Jesuiten metodo pedagogiko batzuk ere bai.

Lestonnac-eko Juanak gaztediaren heziketa indartu eta sekula aldera ez uzteko luzatutako etengabeko mezua, Ordenaren hazkunderako deia zen. Egun, Mariaren Lagundia 26 herrialdetan zehar dago zabaldua. Lau mendetako historiaren ondoren, bi helburu nagusi ditu Lagundiak, hala nola, pertsona bakoitzaren erabateko hezkuntza, eta gizartea eraldatzeko konpromiso sendoa. Helburuko horiek lortzeko tresna, erabat gizatiar eta gizatiartzaille den hezkuntza izango du. Misio hori, hezkuntza-plataforma desberdinetan gauzatuko da, behar desberdinei erantzunaz. Gure eskuak luza-luza eginda izaten jarraitzen dugu Jainkoaren misio sormenezkoan eta sortzailean laguntzeko, mundu anitz honetan heziketa humanista-kristaua eskainiz.

GUILLERMO JOSE CHAMINADE DOHATSUA

Marianisten fundatzailea Perigueux-en (Frantzia) jaio zen 1761ean. Filosofia eta Teologiako bere ikasketak amaituta, Mussidan-go Ikastetxe-barnetegian irakasle eta administrari gisa egin zuen lan. Hortxe aurkitu zuen, hain juxtu ere, haur eta gazteen heziketa bidez Ebanjelioa entzun eta modu askean berorri erantzuteko gai izango diren pertsonak hezteko bidea.

1789an Frantses Iraultza hasiko da. Estatuak Ikastetxea konfiskatu, eta Aita Chaminadek, Kleroaren Konstituzio Zibilari zin egiteari uko egin ostean, Bordelera joatea erabakiko du. Bertan apaiz-zerbitzua isilpean beteko du, bizia etengabe arriskuan jarritz.

1797an erbesteratua izan zen, eta Zaragozara egin zuen ihes, non hiru urtez bizi izan baitzen, bere misio-proiektua mamituz.

Bordelera itzuliko da Iraultza osteko gizarte berria ebanjelizatzeke ilusioz beterik. Lehenik eta behin egin zuena, fedean hazi eta errealitatearekin konpromisoa hartzeko prest zeuden izaera desberdineko pertsonen deia luzatzea izan zen. Halaxe sortu zen bere ekintza ebanjelizatzailearen oinarri izango zen "Kongregazioa" izeneko sekularren mugimendu nekaezina.

Ondoren, Kongregaziokide hainbaten bokazio erlijiosoari erantzun, eta Kongregazioaren beraren jarraipena ziurtatzeko, bi institutu erlijioso fundatu zituen. 1816an, Trenquelleon-go Adela de Batz-ekin batera Maria Sortzez Garbiaren Alaben (FMI) Institutua fundatu zuen. 1817an Bordelen, Mariaren Lagundia (SM), marianistak. Horrela, erlijioso sekular eta apaiz erlijiosoz osatutako elkarteak sortuko dira, elkarrekin eta baldintza beretan, Mariaren estiloari jarraiki, lan egingo dutelarik.

Bi institutuak oso azkar garatuko dira Frantzian. Garai hartan hezkuntza lehentasunezko beharra zenez, marianistek bere egin zituzten hezkuntza zeregin horiek euren misioa betetzeko bide pribilegiatu gisara, hezkuntza intelektual zein morala fede heziketari lotuz.

Guillermo Jose Chaminade Bordelen hil zen 1850eko urtarrilaren 22an. Bere izpirituak bizirik dirau munduan barrena 30 herrialdetan baino gehiagotan Ebanjelioa zabaldu eta mundu hobe bat egiten lanean diharduten gizon eta emakume askorengan. Haren lehen fundazioaren 200 urtera eta heriotzaren 150 urtera 2000ko irailaren 3an gauzatu zen Elizarentzat egiazko zeinu den Aita Chaminaderen beatifikazioa.

Gaur egun marianistak munduko 35 herrialdetan zehar ari dira lanean. Hezkuntza formalaren garapena, adin eta maila sozial guztietako ikasleak biltzen dituzten eskola,

Ikastetxe zein unibertsitatetan gauzatzen da. Era berean hezkuntza ez-formaleko beste hainbat jarduerarekin ere erabateko konpromisoa daukate marianistek, hala nola, alfabetizazio programa bidezko haur zein gazteen hezkuntzan, zereginetako tailerretan, elikaduran eta osasunean. Horrez gainera, beren ardurapean dituzte hainbat parrokia, otoitz-etxe eta gizarte-sustapenerako zentro. Marianisten hezkuntza eta kultur arloko beste lan-sail bat SM Proiektua da: SM Talde Editoriala eta SM Fundazioa.

TRENQUELLEON-go ADELA DE BATZ

Trenquellon-go Adela de Batz Trenquellon-en (Frantzia hegoaldea) jaiotzen zen 1789ko ekainaren 10ean, Frantses Iraultzaren hasieran. Nobleziako kide ziren bere gurasoei, Carlos eta Ursulari, beren jabetzak konfiskatu egin zizkieten, eta erbestean bizi behar izan zuten, Espainian eta Portugalen hain juxtu ere. Donostian bizi izan ziren aldiak, Adelak bere lehenengo jaunartzea Santa Maria elizan egin zuen.

Izpiritualtasun fineko eta behartsuenekiko gertutasun bereziko emakumea izaki, Frantziara itzultzean zeharo hunkitu zuten Adela Iraultzaren ondorioek, eta nagusiki gazteriaren eta nekazarien utzikeriak eta deskristautzeak. Jesus ezagutarazteko bere nahiak lagun talde batekin "Elkarte Txikia" sortzera eraman zuen, hartara fedea elkartean bizi eta ingurukoaren artean zabaltzeko asmoz.

1808an Adela Aita Chaminaderekin harreketan jarri zen, eta berak gidatzen zuen "Elkarte Txikiaren" eta Bordelen Aita Chaminadek zuzentzen zuen Kongregazioaren arteko antzekotasuna ikusirik, ez zuen batere zalantzarik izan azken honekin bat egiteko. Trenquellongo apostolutza esperientzia ugariak, behartsuenekiko emate eta zerbitzuak, nekazarien semealabentzako ikastetxe txikiak eta barne-bizitza oparoak, "proiektu maitatuaren" ametsa piztu zuten Adelarengan: Agen-go nekazal giroko gabezia fisiko eta moralari konponbidea ematea helburu izango zuen elkartebizitza erlijiosoaren bizitza, alegia.

1816an Aita Chaminadek Adelarekin batera Maria Sortzez Garbiaren Alaben Kongregazioa sortu zuen. Emakume erlijiosoek eskolatu gabeko haurrentzako eskola zabaldu, eta emakume nekazariari gorabidea eta katekesia eskainiko diete, hori guztia euren dialektoan gainera. Adelak bere Ahizpei aditzera eman dien "hezierak" ondoko zutabeak ditu, hala nola, Hitzaren entzutea, xalotasuna, tinkotasun leuna, prestasuna, diskrezioa eta misioarekiko irrika. Ezin zitekeen bestela izan, Maria izaera eta egikera eredu izanik.

Ahizpa Marianista Erlijiosoaren egitekoa, gaur atzo bezalaxe, eta Mariak egin zuen moduan Jesusen Berri Onaren berri ematea da. Horixe izan zen Adelaren eta Chaminaderekin legatu handia: Berarekin bat eginik, gure elkartebizitzaren bidez testuinguru desberdinetan Andre Mariagan oinarritutako estilodun fede-heziketaren lekukotasuna ematea.

Gaur egun gure lana Ikastetxe, parrokia, erretiro zein elkarbizitza etxe, eta gizarteratze elkartean burutzen dugu. Horrez gainera, kristau elkartek sortu eta garatu daitezkeen helburu duten hainbat ekintza egiten ditugu.

GURE BERRI EMATEN DUTEN HITZAK

Mariaren Lagundiarentzat (ODN) esanguratsuak diren esaldiak

- 1 “Entzun, alaba, ez dadila itzali nik zure bihotzean piztu dudan sugarra” (Ordenaren historia).
- 2 “Eskua berak luzatu behar zuela ulertu zuen” (Ordenaren historia, Poitiers 1697).
- 3 “Bete zuen izena...” (Lestonnac-eko Juanak Toulouse-ko bere Ahizpei idatzitako gutuna, 1630).
- 4 “Bizi-itxaropen eta gizarte-eraldaketarako itxaropen den gazteriak izango du lehentasuna gure ekintza apostolikoan” (Konstituzioak, II, 1 Artikulua).
- 5 “Gure misioak gizon berri baten heziketan hezitzaile moduan laguntzera konprometitzen gaitu, horrela senide arteko gizarte bat eraikitzeko, non fedea justiziazko ekintzetan islatuko baita.” (Konstituzioak, XVII Art.)

Maria Sortzez Garbiaren Alabentzat (FMI) esanguratsuak diren esaldiak

- 1 “Eskatu Jainkoari hezi zaitzala, zuk ere besteak bere aintzarako hezi ahal izan ditzazun. Berak jarriko ditu zure ahotan hitzak”. (412.3)
- 2 “Bazter guztietan izan dadila ezagun (Jainkoa), bihotz guztiek maitatua, eta pertsona orok zerbitzatua” (450.6)
- 3 “Guk erein eta urezta dezakegu, baina Jainkoak beste inork ez dezake hazkundera eman. Aurki dezagun Jainkoagan gure indarra otoitzaren bidez; fida gaitzen Jainkoaren graziaz gure hitzez baino gehiago, azkenok soinu hutsal besterik ez baitira Jainkoak ulertarazten ez baditu. Beldur naiz ez ote dugun batzuetan geure buruarengan gehiegizko konfiantza. Ene Jainkoa, zuk beste inork ez ditzake bihotzak uki!” (539.2)
- 4 “Andre Maria gure Ama da; izan dezagun Harengan uste ona Institutuaren helburuak lortzeko. Harenak gara. Horrenbestez, alaba-bihotza izan, eta maiz jo behar dugu Beragana, amarik samurrenak iradokitzen duen konfiantzaz beterik”. (574.3)
- 5 “Hezkuntzak toki berezia betetzen du, pertsona askatzeko joera izateaz gainera, osoki garatzen ere laguntzen baitio, horrela bihotzak Berri Ona jasotzeko prestatuz. Berezi ki gazte eta behartsuei zuzendutako misioak aukeratzen ditugu”.

Mariaren Lagundiarentzat (SM) esanguratsuak diren esaldiak.

- 1 “Hezkuntza, fedean hezteko bitarteko pribilegiatua da guretzat. Berorren bidez, kristau izpiritua erein, jorratu eta sendotu nahi dugu, bai eta gizakiengan ugalkor egin ere”. (RV 74)
2. “Modu eta eiteei ausardiaz eman behar zaizkie eman beharreko ukituak, ez baitira inondik ere aldakaitzak; garai, toki eta ohiturak nola, eurak ere hala aldatu behar dira”. (G. J. Chaminade)
- 2 “Beharrezkoa da irakasleek diotena eta euren ekintzak bat etortzea. Ezinbestekoa da santutasunaren bidean egon daitezen, gainerakoek ere bide horretara jo dezaten” (G. J. Chaminade)
- 3 “Hezitzaileak “berezi ki kontuan hartu beharrezkoa du erabat ona ez dena ez txar gisa baztertzea; guztiok ez dugu grazia-maila bera jasotzen, ez eta patu bera ere. Nahikoa du norberak Jainkoak nahi duen modukoa izatea” (G. J. Chaminade)
- 4 “Haurrak ez dira harberak soilik; aitzitik euren gurasoen apostoluak izatera iristen dira, eta beren apostolutza horrek ia beti fruituren bat ematen du”. (G.J.Chaminade)

3. KOKAPENA

Summa Aldapeta ikastetxea elkarrengandik gertu dauden hiru eraikinetan dago kokaturik:

- Haur Hezkuntza: San Bartolome gaina 24an.
- Lehen Hezkuntza: lehen eta bigarren zikloak, Aldapeta 17an.
- Lehen Hezkuntza: hirugarren zikloa, Aldapeta 25ean.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa: Aldapeta 17an.

Eraikin bakoitza bere berezko ezaugarriekin adin eta hezkuntza-etapa bakoitzaren eskakizunetara egokitua dago, modu horretara ikasle zein familiei arreta pertsonalatuagoa eskaintzea ahalbidetuz.

4. GURE HEZKUNTZA PROPOSAMENA

Bere izatearen zergatia, ahalbidetzen duen lan hezitzaile eta ebanjelizatzailean datza. Jesusen Jainkoarekin bat egiteko bidea zabaltzen du, ikaslearen esnatze erlijioso eta barnebizitza zaintzen ditu, heziketa erlijioso sistematikoa eskaintzen du, eta ospakizun uneak proposatzen ditu taldekako eta konpromisozko esperientziak eskainiz.

Pertsona eta Nazaret-eko Jesus oinarri dituen heziketa **eskaintzen du**. Mariak, Haren lehen ikasleak, ematen dio izen berezia eta nortasuna Proiektuari. Inspirazio iturri da Maria.

Egungo testuinguruan fedea, kultura eta bizitzaren arteko elkarrizketa **sustatzen du**. Heziketa-prozesuan zehar ondoko alderdiok indartzen ditugu:

- Pertsonaren eta munduaren ikuskera kristaua transmititzen duen **giroa**. Fedea aukera pertsonal eta aske gisara aurkezten du, bizitzari zentzua eman eta gizartearen eraldaketan lagungarri den aukera gisara, alegia.
- Pertsona erdigunea duen **heziketa integrala**. Pertsona hori bakarra da, bere berezitasunean errepikaezina, berezko nortasuna eta izen berezia dituena. Bere dimentsio fisiko, intelektual, afektibo eta izpiritualak lantzen ditugu. Lanketa honek ikaslearen ondoko alderdiok garatzea eskatzen du, hala nola:
 - Gorputza, eta bizimodu osasuntsua.
 - Afektibitatea eta hunkiberatasuna.
 - Sormena areagotu eta bizi den mundua ulertzen lagunduko dion alderdi intelektuala.
 - Inguruan dituenekin erlazionatu eta gizarte anitz batean bizitzeko gaitasuna emango dion alderdi soziala.
 - Transzendentziara, alteritatera eta zentzu bila jotzeko aukera emango dion alderdi izpirituala.
- **Baloretan oinarritutako heziketa**: bizitzaren balorea, gizakiaren duintasunarena, barnebizitzaren, askatasunarena, barkamenarena, arduraren, justiziaren, bakearen, egiaren, elkartasunarena, pentsamendu kritikoarena, esfortzuen, diziplina pertsonalaren, besterengana irekitzearen, harremanetarako gaitasunarena, kontzientzia ekologikoarena, alaitasunarena, itxaropenarena,...

- **Prestaketa akademiko ona**, bai ondorengo ikasketei, bai eta bizitza profesionalari ere besterekiko eskuzabaltasunez berme osoarekin erantzuteko.
- **Gelatik haratago doan heziketa**, hezkuntza integrala eta kulturartekotasuna bultzatuko dituen hezkuntza-guneak bilatuz. Curricularrak ez diren hainbat ekintzari lehentasuna ematen diegu, hala nola, bizitza eta fedea elkarbanatu, zentzu artistikoa landu, naturaz gozatu, natura bera zaindu, kirola egin, eta beste errealitate batzuekin harremanetan jartzeko lagungarri direnei.

5. ILDO PEDAGOGIKOAK

Proiektu honek, gure izaeraren eta misioaren estiloa taxutzen duten ondoko ildo pedagogikoak ditu oinarrian:

- **Bizitzan eta bizitzarako hezten dugu.** Gure ikasleei gizartean beren tokia modu arduratsu, kritiko eta eraikitzailean aurki dezaten lagundu nahi diegu, hiritar kontziente eta konprometitu gisara.
 - Testuinguru soziokulturalean gizarteratuak, aukera zein mugen jakitun, eta garai berriek exijitzen dituzten egokitzapenekiko irizpide irekien jabe.
 - Pertsona trebe eta gaituak garatzera eramango duen kalitatezko hezkuntzaren emaile.
 - Gaur egungo auzi nagusiak (ipar-hego desoreka, gainbehera ekologikoa, bakegintza,...) oso gogoan izango dituen programen diseinatzaile.
- Berebiziko garrantzia ematen diogu **tutoretzari**, integrazteko, bidelagun izateko eta hazten laguntzeko tresna gisara.
 - Ikaslea da gure proiektuaren ardatza, bakoitzari arreta berezia eta errespetuzkoa eskaintzen diogularik.
 - Ikaslearen autoestimua indartzen dugu, eta bere hazkunde prozesuan laguntza eskaintzen diogu.
 - Ikasleari bere buruarekin, besteekin eta Jainkoarekin elkartzea ahalbidetzen diogu.
 - Talde-integrazioa eta familia-izpiritua bereziki zaintzen ditugu pertsonarteko harremanetan eta ikastetxeko elkarbizitzan.
- **Kalitatezko irakaskuntza** eskaintzen dugu, pertsonengan gaitasun sozial, linguistiko, teknologiko eta izpiritualak garatzen dituena, autoebaluazioa eta etengabeko hobekuntza oinarri dituen antolakuntza-kultura bat sortuz. Ikasleak disziplinarartekotasunetik ikas dezan bilatzen dugu.
- **Aniztasunarekiko trataera** errealitate desberdinak kontuan izanik zaintzen dugu (etnikoak, kulturalak, erlijiosoak, gaitasunei dagozkienak); zainketa horrek aniztasunaren aberastasuna onartzen laguntzeaz gainera, harreman-mota berri bat ere bultzatzen du.

- **Garapenerako hezkuntza** bultzatzen dugu. Berau, ezagutza, jarrera eta baloreenbidez gizarte aldaketa eta hiritartasun globala gauzatzeko beharrezkoak diren sentsibilizazioa, prestaketa, kontzientzia eta konpromiso pertsonala eskura jartzen dituen hezkuntza-prozesu gisara ulertzen dugu.
- Gaur egungo belaunaldien beharrei etorkizuneko belaunaldienak kolokan jarri gabe erantzuteko gai den **jasangarritasuna** bultzatzen dugu.
- Geure egiten dugu **aniztasun linguistiko eta kulturala**. Euskal kulturaren ezagutza zein bizipena, eta euskara ongi menderatzea bultzatzen ditugu.

6. ELKARTEAN HEZTEN DUGU PROIEKTU KOMUN BATETIK ABIATUTA

Elkartea da beti hezten duena. Hezkuntza Elkartearen osatzen duten kideek Proiektuarekiko duten identifikazioa, eta beronen garapenean duten parte-hartze zein protagonismoa funtsezko faktoreak dira.

Gure Hezkuntza Proiektuaren printzipio eta baloreak modu koherentean onartu eta transmitituko dituen elkarte bizi baten aldeko apustua egiten dugu. Gizon eta emakume erlijiosoek, ikasleek, irakasleek, familiek eta administrazio zein zerbitzu-taldeen langileek osatzen dute elkarte hau, zeinak ilusioz eta arduraz beterik, batasunean, bai besteak eta bai beren buruak hezteko misio garrantzitsua bere egin baitu. Horregatik guztiagatik elkartekide guztiek bat egiten dute Hezkuntza Proposamen honen ideal, balore eta xedeekin, eta osagarritasunetik abiatuta bizi egiten dituzte eguneroko jardunean.

Gure Ama Mariaren Lagundiak (ODN), Maria Sortzez Garbiaren Alabek (FMI) eta Mariaren Lagundiak (SM) ezartzen dute Ikastetxearen berezko nortasuna beren karismatik abiatuta, eskaintzen den hezkuntza mota definitzen duten printzipio eta irizpideekiko fideltasuna ziurtatuz. Euren da Ikastetxearen azken ardura gizartearen, aginte publikoen eta Hezkuntza Elkarte osoaren aurrean ere. Euren da, era berean, Ikastetxeak heziketa-zerbitzua ematen jarraitzearen ardura, eta eurak dira, azken finean, Ikastetxea zuzendu eta suspertzeko arduradunak.

Ikasleak dira Hezkuntza Elkartearen erdigune eta beren heziketaren protagonistak. Ikastetxetik sustatzen den ekimen orok, ikasleei prozesu pertsonal eta ikasketazkoan hazi eta aurrera egiteko aukera ematea du helburu. Ikasleek aktiboki esku hartuko dute eskola-bizitzan, beti ere adin eta gaitasunen arabera legezkiekeen gauzez arduratuz.

Ikastetxeak era berean ikasleek elkarte eta taldeak sortu eta euren parte hartzera bultzatzen ditu, beren prestaketa-prozesuan aurrera egin eta sakontzeko bidea dela irizten baitio.

Ikasle ohien elkarrekin zerbitzua eskaintzen diete gure ikastetxeetan ikasi duten pertsonen.

Gure iritziz, guraso, irakasle eta irakasle ez diren langileek, heziketaren zerbitzura dagoen elkarte bat osatzen dugu.

Gurasoak dira beren seme-alaben heziketaren arduradun nagusiak. Euren jokamolde aktibo eta arduratsua funtsezkoa izango da seme-alabengan zenbait balore sustatzeari begira.

Heziketa integral eta armoniatsua lortzeko, ezinbestekoa da familiak eta ikastetxeak ahalegin eta irizpideetan bat egitea. Familiak jarrera laguntzaile eta errespetuzkoa erakutsi behar du Ikastetxearen heziketa estiloarekiko, eta Ikastetxeak harreman erraz eta etengabea ahalbidetuko du, ikastetxearen bultzatzean familien partaidetza sustatuz. Modu berezian gurasoentzako prestakuntza-ekintzak eta elkarrizketarako bideak proposatuko ditu, beti ere beren seme-alaben heziketarako mesedegarri izango direnak. Horrekin batera pastoraltza arloko eskaintza familiei ere luzatuko die, hartara guztion artean fede-elkartea osatzea errazteko.

Irakasleak, ikastetxearen hezkuntza-ekintzaren eragile funtsezkoak dira. Irakasleak berak dira prozesu pedagogikoen kalitatearen arduradun nagusiak, eta beren eragina erabakigarria da Hezkuntza Proiektua abian jartzeko eta egiazko Hezkuntza Elkarte bat osatzeko.

Irakasleek lankidetzaren, malgutasuna, eginkizunen trukea eta ideiak zein baliabideak amankomunean jartzea sustatuko dute, lehiakortasun eta pertsonalismoen gainetik.

Heziketa-ekintza, irakasle eta ikasle arteko harremanaren bidez gauzatzen da, eta horrenbestez irakasleak bere izatea ematen dio aditzera ikasleari. Jakitun da lekukotasunaren eta koherentziaren garrantziaz, eta bere lana gertutasuna eta harreman pertsonalen kalitatea oinarri harturik garatzen du.

Administrazio eta zerbitzuetako langileek, entrenatzaile, begirale, eskolaz kanpoko jardueretako irakasle, katekista eta abarrekin batera, hezkuntza-helburuak lortzeko jarduten dute. Modu solidarioan ikasleen heziketan eta ikastetxearen funtzionamendu egokian konprometitzen dira. Tratu atsegina, lanarekiko dedikazioa, lan horren beraren kalitatea eta lagunartekotasuna, giltzarri diren faktoreak dira bere heziketa-eraginean, ikasleek jaso eta ikasten duten bizilekukotasunarekin batera.

Proiektu eta sentimenduen komunikazioak, heziketa-ekintzen koordinazio eta batasunak, eta desberdinen harrerak, eraginkorragoa egingo du hezkuntza-elkartekide bakoitzaren garapen armoniatsuaren bilaketa. Elkarteko kide guztien arteko parte hartzea, lankidetzaren eta elkarrizketa bultzatzen ditugu.

Langileen etengabeko prestaketaren, talde-lanaren eta berrikuntzaren daraman gogoeta pedagogikoaren alde egiten dugu.

Garrantzitsua da hezkuntza-elkartekide guztien etengabeko prestakuntza sistematizatzea, bereziki heziketa-lana aurrera eramateko derrigorrezkoak diren arloetan.

Hezkuntza-elkarteko estamentu desberdinen ekimen eta interesei bide ematen diegu, guztion artean gure proiektua gauza dadin.

Ondokook dira ikastetxearen funtzionamendua ahalbidetzen duten organo nagusiak:

-Errektore kontseilua: ordezkatzen dituen hiru Erakundeetako talde probintziales osatzen dute, eta bere egitekoak hauek dira, hala nola: ikastetxearen nortasuna eta beronek gizartean duen egitekoa zehaztea; ikastetxean zuzendaritza, hezkuntza, administrazio edota laguntzaile lanarekin dituzten pertsonen giza zein profesional arloko prestaketa-bitartekoak jartzea; eta pertsona horiei berei, merezi duten onarpen pertsonal, sozial eta ekonomikoa sustatzea.

-Zuzendaria eta zuzendaritza taldea: euren da zentroaren kudeaketaren inguruko azken ardura, bai eta helburuen lortzearen ere.

-Irakasle klaustroa: prozesu akademiko zein pedagogikoen kalitatea ziurtatzen ahaleginduko da.

-Eskola kontseilua: Hezkuntza Elkarteko estamentu desberdinak biltzen ditu, eta bertan partaidetza zein elkarrizketa zentroaren arlo guztien zerbitzura jartzen dira.

-Ikasleen gurasoen elkartea: gurasoek zentroaren ekintza desberdinetan parte hartu eta laguntzeko bitartekoa da.

Barne Funtzionamendurako Araudia, zentroaren funtzionamendua arautzen duen agiria da, eta horrez gainera, Hezkuntza Elkartea osatzen duten talde zein pertsona desberdinen arteko koordinazio egokia bermatzen du.

Elkarbizitza planak, Hezkuntza Elkarteko kide guztien arteko elkarbizitza-giro egokiaren alde egiten duten jarrerak sustatzea du helburu.

Zentroaren bizitzaren ebaluazio jarrai eta osotasuneko egiteak, lorpenak baloratu eta beharrezkoak liratekeen hobekuntzak egiten lagunduko du.

Hezkuntza Elkartea osatzen dugu pertsonok bat egiten dugu Hezkuntza Proposamen honen ildo, balore eta xedeekin, eta bizi egiten dugu eguneroko jardunean.

7. AMAIERA

Summa Aldapeta ikastetxeak proiektuak eta indarrak batzen ditu, eta donostiar haur zein gazteei, argi egin eta fedearen sugarrari bizirik eutsiko dion “argia” eskaini nahi die.

Nazaret-eko Jesusen “Zuek zarete munduko argia” hitzek elikatu eta indarberritu egiten dute gaur gure hezkuntza misioa.

Proiektu hau onartzen duen Hezkuntza Elkarreak, bokazioa eta profesionaltasuna, koherentzia eta ardura, elkarrenganako konfiantza eta malgutasuna biltzen dituen eskaintza izan nahi du.

Bere bokazioa elkartze pertsonalean hezte da, bihotzetik. Esperientzia baikorretatik abiatuta, bete-betekoa, zoriontsua eta besteren zerbitzura emanikoa den bizitza bizitzeko prestatzen du. Mariak bezala.